

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berriarazo oinarriak eta deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2024ko ekitaldiko laguntza-deialdiaren barruan

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko azaroaren 29ko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta berriarazo oinarri arautzaileak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2024ko ekitaldiko laguntza-deialdiaren barruan.

Berriarazo deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo behar dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Aipatutako erabakiak administrazio-bidea agortzen du, eta haren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik — kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berriarazo edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren oinarri arautzaileen publikotasunari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau esparrua

Deialdi hau dagozkion oinarriek eta honako arau hauek arautuko dute:

Dirulaguntzen ordenantza orokorra (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Eskualdeko XII. Enplegu Planaren barruko lan-kontrataziorako laguntzak, 2024.

Indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2022-2024), zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, aurreikusita dago 28. laguntza-ildoak/Ekintza: Vitoria-Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko laguntzak. Ondoren, 08_07_03 fitxaren bidez aldatu zen, zeina Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 29an onetsi baitzuen.

Aipaturiko ildo horren arabera, laguntzen helburua da enplegu mugagabea sortzen laguntzea. Era berean, eraginkortasunean ahalik eta irismen handiena lortzeko, laguntzak izaera orokorrekoak dira, sektore guztiei bideratuak.

Laguntzen bidez sustapenerako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

Udalerrri honetan erroldatuta dauden eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabeei zuzendutako kontratazioak egiten dituzten eta kontratazio horiek udalerriko lantoki batean kokatzen diren tokiko enpresei laguntzea.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaille gisa izena emanda dauden Vitoria-Gasteizko langabeentzako enplegua sortzeko laguntzak ematea, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzea faboratzen delarik.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da udalerriko langabeen lan-kontratazioa bultzatzea. Helburu horrekin, konkurrentzia sinplearen erregimenean laguntza ekonomikoak emateko baliatuko diren betekizunak ezartzen dira, ohiko merkatuan lanaldi osoko nahiz partzialeko kontratazioa sustatu eta errazteko Vitoria-Gasteizko udalerrian.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaille gisa izena emanda dauden Vitoria-Gasteizko langabeak kontratatzea zuzenduta daude laguntzak, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzea faboratzen delarik.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomikook.

3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

Laguntzen kopurua mugatua izango da: hiru enpresa, pertsona autonomo edo entitate bakoitzeko, laguntza mota bakoitzean.

Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen direlarik egiten diren lan-kontratazioak.

1. mota. Kontratu mugagabeak.

Kontratuak mugagabeak izango dira, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako; lanaldiak gutxienez ehuneko 50ekoa izan beharko du, diruz laguntzen den epe osoan.

2024ko apirilaren 3tik 2025eko apirilaren 30era bitartean (egun hori barne) egiten diren kontratazioek jaso ahalko dute dirulaguntza.

Kontratazioek enplegu-sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko 6 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean. Kontratazioaren egunean, kontratu berriak batez besteko horren gaineko igoera ekarri behar du. Betekizun hori betetzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko arrazoi hauengatik azkendu diren kontratuak: bidezko diziplinazko kaleratzeak, dimisioa, heriotza, desgaitasuna, adinagatiko erretiroa, lan-denboraren borondatezko murrizketa nahiz langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.

Enpresak gutxienez 12 hilabetez eutsi beharko dio dirulaguntzaren xede den kontratu mugagabeari.

Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera enpresa edo pertsona autonomo desberdinek egin; alegia, dirulaguntza bakarra emango da, eskabidea aurkeztu den hurrenkera aintzat hartuta.

2. mota. Iraupen mugatuko kontratuak, ikuskizun publikoetako artista, teknikari eta laguntzaileei dagozkienak.

Iraupen mugatuko kontratuak, ikuskizun publikoetako artista, teknikari eta laguntzaileei dagozkienak, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak —Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onesten du— I. eranskinean emandako definizioari jarraituz.

Kontratu horiek gutxienez hiru (3) hilabeteko iraupena izan beharko dute, eta lanaldi osoa edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partziala; edozein kontratu mota erabili ahalko da, prestakuntza- eta ikasketa-kontratua izan ezik. Aurkeztutako kontratu bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko iraupena sei (6) hilabetekoa izango da, kontratuaren iraupena sei (6) hilabetekoa edo gehiagokoa izan ala ez.

Kontratazioek enplegu-sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko 6 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean. Kontratazioaren egunean, kontratu berriak batez besteko horren gaineko igoera ekarri behar du. Betekizun hori betetzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko arrazoi hauengatik azkendu diren kontratuak: bidezko diziplinazko kaleratzeak, dimisioa, heriotza, desgaitasuna, adinagatiko erretiroa, lan-denboraren borondatezko murrizketa nahiz langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.

Dirulaguntza jasotzeko, kontratazioak data hauen artean egin beharko dira (kontratuak formalizatzea): 2024ko apirilaren 3tik 2024ko azaroaren 30era (egun hori barne).

Hala ere, diruz lagundu daitekeen aldia 2024ko apirilaren 3tik 2025eko otsailaren 28ra bitartekoa izango da (egun hori barne), kontratuen iraupenak tarte horren barruan egon behar baitu, kontuan izanik diruz lagundu daitekeen gutxieneko eta gehieneko iraupena (3 hilabete eta 6 hilabete, hurrenez hurren). Hori ez da oztopoa izango kontratazioak eskatutako epetik harago luzatzeko, baina ondorengo datei dagozkien kostuak ez dira inola ere diruz lagunduko.

Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera enpresa edo pertsona autonomo desberdinek egin; alegia, dirulaguntza bakarra emango da, eskabidea aurkeztu den hurrenkera aintzat hartuta.

4. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

Langileen Estatutuaren Legearen 44. artikulua eraginpeko enpresek formalizatutako kontratazioak (enpresaren titulartasunaren ondorengotza baten edo haren forma juridikoaren aldaketaren ondoriozkoak), kontratazio-dataren aurreko 6 hilabeteetan eta deialdi hau ebazten den egunera arte.

Enpresaburuen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailara arteko —hori barne— odol-edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideak —edo horien parekoak, izatezko bikoteen kasuan— kontratatzeke, edo zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz administrazio-organoetako kide direnak.

Enpresa berak langile bera kontratatzea, baldin eta aurreko deialdietan dirulaguntza jaso bada.

Eskabidearen zio den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan enpresa berarekin lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonak kontratatzea.

Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen dagozkien kontratazioak.

Prestakuntza- eta ikasketa-kontratuak.

Aldizkako finkoen modalitatean egindako kontratuak.

Txanda-kontratuaren modalitatean egindako kontratuak.

Era berean, ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan aurreikusitako debeku egoeraren batean dauden enpresa edo entitateak.

Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

Aldi baterako lanerako enpresak, langileak beste enpresa bati aldi baterako lagatzeko kontratatzeari dagokionez.

Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz beraren enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko egindako lan-kontratazioak.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak —urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak, salbu eta artikuluko horren e) apartatuan jasotako lan-harremanak, deialdi honetako 2. motako laguntzetan diruz lagundu daitezkeenak.

Deialdi honetan aurreikusten diren enpresentzako laguntzek Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako “minimis” araua bete beharko dute, hau da, Europar Batasunaren Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko “minimis” laguntzei aplikatzeari buruzko araua.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen udal ordenantzak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta udalaren webguneko (www.vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, enpresa edo entitate eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Onuradun izateko betekizunak

6.1. Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako betekizun guztiak bete beharko dira enpresa onuradun izateko.

6.2. Kontratazioaren hasieratik betekizun hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateek jaso ahalko dituzte programa honetako dirulaguntzak, edozein delarik ere beren forma juridikoa:

Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Vitoria-Gasteizko udalerrian jarduera ekonomikoa duen lantoki batean.

Zerga- eta lan-betebeharrak egunean edukitzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalari dagozkionak ere.

Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak —Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena— 3.1 artikuluan jasotako sexu-diskriminazioarengatik edo diskriminazio anizkoitzarengatik gertatutakoak barne, edo Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak —abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan aurreikusitako zehapen osagarria jaso izana.

Beste dirulaguntzarik ez jaso izana, pertsona bera kontratatzeko, Vitoria-Gasteizko enpresei lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren aurreko deialdietan.

Baldintza horiek betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri

hautan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkaturiko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarteak, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

6.3. Kontrataturiko direnek betekizun hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

- Kontratazioaren aurreko egunean Vitoria-Gasteizen erroldatuta egotea.
- Langabezia egotea, hau da, Gizarte Segurantzaren inongo erregimenetan izena emanda ez egotea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda eta altan egotea, kontratazio-egunaren aurre-aurreko egunean, bi kasuetan.

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdiaren diru-hornidura bi milioi berrehun eta berrogeita hemeretzi mila eta laurogeita bi eurokoa (2.259.082,00 euro) izango da, eta partida hauen kontura egingo da:

2024ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.15 partida, "Eskualde Plana, Lanbideren ekarpena" izenekoa (1.849.082,00 euro).

2024ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.20 partida, "Eskualde Plana, Udalaren ekarpena kontrataziorako" izenekoa (410.000 euro).

Aurrekontu-izendapena honela banatuko da, bi laguntza moten artean:

1. mota: bi milioi ehun eta laurogeita bederatzita mila eta laurogeita bi euro (2.189.082,00 euro).
2. mota: hirurogeita hamar mila euro (70.000,00 euro).

Laguntzak emateko prozedura bete ondoren mota horietako batean ematen diren laguntzen zenbateko osoa aurreko atalean adierazitakoa baino txikiagoa bada, deialdiko baldintzak bete arren aurrekontua nahikoa ez izateagatik hasiera batean laguntzarik gabe geratu diren beste laguntza-motako eskabideei dirulaguntza emateko baliatu ahalko da funts-soberakin hori.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haririk, zuzkidura hori handituz izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek laguntzetarako kudeatzen dituen partiden multzoan krediturik badago, eta aipatutako artikuluan zenbateko gehigarriak ezarri eta erabiltzeko ezarritako arauak jarraitzen bazaie.

Aurrekontu-partida horretarako kreditua handitzen bada, 1. motako laguntzetarako aurrekontu-izendapena handituko da.

Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan aski kreditu izan beharko da erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezintasunak izango dira kontzeptu, xede edo epe bererako beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek dirulaguntza eskatzeko aurkeztu den kontratuarekin lotuta ematen dituzten beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

9. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldeztu aurretik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko apirilaren 30ean (1. mota) edo 2025eko otsailaren 28an (2. mota) amaituko da, baldin eta deialdiaren diru-zuzkidura aurretik agortu ez bada; kasu horretan, amaitutzat emango da deialdia, baita eskabideak aurkezteko epea ere.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Dagokion eredia baliatuz aurkeztu beharko dute eskabidea interesatuta dauden enpresek —oinarri hauen I. eta III. eranskinetako eredia 1. motako laguntzetarako, eta II. eta III. eranskinetako eredia 2. motako laguntzetarako—, baita 10. oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazioa ere, herritarrei laguntzeko bulegoetan (HLB), San Martineko eraikinean (Teodoro Dublang Margolariaren kalea zenbaki gabe.), edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa. Orobat aurkeztu ahalko dute legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

— Aurrez aurre:

udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30-14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren arabera (16.4 b artikulua), eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

9.3. Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko diren abisuak jasotzeko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

9.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

Enpresa edo entitate batek gehienez 3 eskabide aurkeztu ahalko ditu laguntza mota bakoitzean.

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

10.1. 1. motako laguntzak:

Eskabide-orria, eta zinpeko aitortpena, oinarri hauen I. eta III. eranskinetan ageri den erediaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

Erakunde eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

IFZ edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresaren IFK.

Enpresaren edo entitatearen eratze-eskriturak, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalordeen egiaztapena, ondorengo aldaketekin, baldin eta dokumentazio hori aurkeztu ez bada Vitoria-Gasteizko lan-kontratatorako laguntza ekonomikoen 2021., 2022. eta 2023. urteetako deialdietan, betiere aldaketarik izan ez bada.

Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetako batez besteko plantillari buruzkoa, kontratatutako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren eguneko batez besteko plantillari buruzkoa, kontratatutako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona.

Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

Kontratatutako pertsona egiaztatzeko agiriak:

Kontratuaren NANA edo AIZ.

Errola-ziurtagiri historikoa.

Kontratuaren lan-bizitzaren txostena, gutxienez ere kontratazioaren aurreko urte eta erdia eta kontratazioaren ondorengo eguna barne direla.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondako aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko 18 hilabeteetako.

Kontratua talde berezietakoren batekoa izanez gero, hori egiaztatzeko behar diren agiriak.

Kontratua eta soldata-kostuak egiaztatzeko dokumentazioa:

Aldeek sinatutako lan-kontratuaren kopia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.

Kontratazioaren urteko soldata-kostuaren ziurtagiria, enpresa edo entitateak emana. Kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta —kontratatzeko egunaren ondorengo 12 hilabeteetako—. Ziurtagiriak enpresaren, langilearen eta dirulaguntza eskatzen den kontratazio-aldiaren datu osoak jasoko ditu, soldata gordinaren kostuak eta enpresaren kargurako kostuak banakatuta, eta enpresaren/entitatearen legezko ordezkariak behar bezala sinatuta aurkeztu beharko da.

10.2. 2. motako laguntzak:

Eskabide-orria, eta zinpeko aitortpena, oinarri hauen II. eta III. eranskinetan ageri den ereduaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

Erakunde eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

IFZ edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresaren IFK.

Enpresaren edo erakundearen eratzte-ekriturak, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalordeen egiaztapena, ondorengo aldaketekin, baldin eta dokumentazio hori aurkeztu ez bada Vitoria-Gasteizko lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoen 2021., 2022. eta 2023. urteetako deialdietan, betiere aldaketarik izan ez bada.

Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetako batez besteko plantillari buruzkoa, kontratatutako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren eguneko batez besteko plantillari buruzkoa, kontratatutako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona.

Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

Kontratatutako pertsona egiaztatzeko agiriak:

Kontratuaren NANA edo AIZ.

Errola-ziurtagiri historikoa.

Kontratuaren lan-bizitzaren txostena, gutxienez ere kontratazioaren aurreko urte eta erdia eta kontratazioaren ondorengo eguna barne direla.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondako aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko 18 hilabeteetako.

Kontratua talde berezietakoren batekoa izanez gero, hori egiaztatzeko behar diren agiriak.

Kontratua egiaztatzeko agiriak:

Aldeek sinatutako lan-kontratuaren kopia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.

Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratu da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Zergak aipatutakoez besteko administrazio batean ordaindu behar badira, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahalko du ofiziozko egiaztapenerako baimena (l. eranskina); kasu horretan, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean (luzaezina) hutsak zuzen ditzan errekerituko dio instrukzio-organoak interesdunari. Halaber, ohar-taraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

12.1. Prozedura.

Konkurrentzia sinplea izango da dirulaguntzak emateko prozedura. Deialdi honen ondorioetarako, honako hau hartuko da konkurrentzia sinpletzat: pertsona edo erakunde onuradunak oinarri hauetan adierazitako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren, laguntzak sarre-erregistroko hurrenkera kontuan harturik ematea, dirulaguntza mota bakoitzean, kreditua agortu arte.

Hala ere, dirulaguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da deialdia ebazteko orduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko operatibo bat gaituta eduki beharko dute eskatzaileek tramitazioak iraun bitartean, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak modu legalean arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

12.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

Eskabideak jaso eta betekizunak betetzen diren egiaztatu ondoren tramitatzea onartzen delarik, Prestakuntzaren, Enplegu Sustapenaren eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzuko Enplegu Atalak txosten teknikoa egingo du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak. Hala ere, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetuko zaio errekurtsoak eta itzulketak ebazteko eskumena.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taula izango dira.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik.

13. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea hasten den egunaren biharamunetik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

14. oinarria. Enpresa edo entitate onuradunen betebeharrak

14.1. Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorren 12. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte enpresa edo pertsona onuradunek:

Laguntza emateko arrazoa izan den jarduera betetzea eta bete dela egiaztatzea, hau da, lan-kontratu bat formalizatzea, eta emateko betekizunak eta baldintzak betetzea.

Vitoria-Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arautan aurreikusitakoen mende ere.

Zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari zein Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

Udal dirulaguntza honetara aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

Jasotako funts publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

14.2. Era berean, 1. motako laguntza jasotzen duten enpresek honako betebeharrak hau izango dute:

Sortutako kontratu mugagabea gutxienez 12 hilabetez mantentzea, eta aldi osoan zerga- eta lan-betebeharrak betetzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak ere. Betebeharrak horiek betetzen ez badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Baldin eta aldi horretan, dirulaguntza norengatik ematen den, pertsona horrek dena delakoagatik baja hartzen badu enpresan/entitatean, ezaugarri berak dituen beste pertsona batekin ordezkatu beharko da, deialdian adierazitako betekizun berak betez eta baldintza berberetan edo hobeetan; horretarako hilabeteko epea izango da, baja ematen den egunetik. Vitoria-Gasteizko Udalari horren berri eman beharko zaio, gehienez ere 15 eguneko epean kontratu berria egiten den egunetik. Ordezkapen bakarra egin ahalko da.

Dirulaguntza ematea ebatzi aurretik gertatzen bada baja, aurkeztutako eskabidea bertan behar geratuko da.

Adierazi bezala ordezkutzen ez bada, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Kontratuarengatik dirulaguntza lortu den pertsonaren batek baja hartzen badu enpresan/entitatean —probaldia ez gainditzeagatik, lanpostua norberaren borondatez uzteagatik, bidezko kaleratzeagatik edo heriotza nahiz ezintasunagatik—, eta dirulaguntza emateko zio izan diren betekizun berak betetzen dituen beste pertsona bat kontratatzen ez bada hilabeteko epean, dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko da. Alegia, Gizarte Segurantzari baja ematen zaion egunetik hasi eta dirulaguntza emateko zio izan zen kontratua mantendu behar zeneko aldia bukatu arteko tarteari dagozkion dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko da.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Ez da behar.

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

16.1. 1. motako laguntzak.

16.1.1. Gehienez 8.000,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75a, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

16.1.2. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira:

Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) jasotzen dutenak.

35 urtetik beherakoak.

Luzaroko langabeak. Halakotzat joko dira kontratazio-dataren aurreko 540 eguneko aldian gutxienez 360 egunez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publikoren batean enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon diren langabeak.

55 urtetik gorakoak.

Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako ehuneko 100a, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Lanaldi partzialeko kontratazioetan —gutxienez ehuneko 50, 3. oinarriaren arabera—, lanaldiaren arabera izango da dirulaguntza.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak ehuneko 10 handituko dira kontratuak emakumeei egiten bazaizkie. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, gehikuntza hori aplikatzean, ezingo du gainditu 1. apartatuan jasotako kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75, ezta 16.1 apartatuan jasotako kolektiboetako pertsonen kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 100 ere, kontzeptu guztiengatik enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari egindako kotizazioa barne.

Urteko soldata-kostutzat zenbatuko dira ordainsari gordinari dagokion gastua (lanaldiaren arabera) eta enpresaren kargura Gizarte Segurantzari dagozkion kostuak. Enpresak/entitateak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du gainerako nahitaezko dokumentazioarekin batera, eta gero justifikatu egin beharko du (12 hilabete geroago kontratuaren dataz geroztik). Baldin eta, gerora, eskabidean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa justifikatzen badu enpresa edo entitateak, eta horrek laguntzaren kalkulua aldatzen duelarik ateratzen den kopurua benetan diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, jasotako dirulaguntzaren dena delako zati proportzionala itzuli beharko du.

Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta —kontratuaren dataren ondorengo 12 hilabeteetako—.

16.2. 2. motako laguntzak.

16.2.1. Gehienez 6.000,00 euroko laguntza emango da sei (6) hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 75etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

16.2.2. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 7.500,00 eurokoa izango da, sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira:

Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) jasotzen dutenak.

35 urtetik beherakoak.

Luzaroan langabe daudenak. Halakotzat joko dira kontratazio-dataren aurreko 540 eguneko aldian gutxienez 360 eguneko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publikoren batean enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon diren langabeak.

55 urtez gorakoak.

Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 100etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

Lanaldi partzialeko kontratazioetan —gutxienez ehuneko 50, 3. oinarriaren arabera—, lanaldiaren arabera izango da dirulaguntza. Dirulaguntza lan egindako denboraren proportzioan kalkulatu da, gutxienez 3 hilabeteko eta gehienez 6 hilabeteko mugarekin.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak ehuneko 10 handituko dira kontratuak emakumeei egiten bazaizkie. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, gehikuntza hori aplikatzean, ezingo du gainditu 1. apartatuan jasotako kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen ehuneko 75a, ezta 16.2 apartatuan jasotako kolektiboetako pertsonen kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen ehuneko 100a ere, kontzeptu guztiengatik enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari egindako kotizazioa barne.

Dirulaguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da deialdia ebazteko orduan.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Tokiko Gobernu Batzarrak deialdiaren ebazpena onartu ondoren dena batera ordainduko da. Horren aurretik, 10. oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazioa aztertu eta kontratazioa behar bezala egin dela eta deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatuko da (14.1. oinarrian adierazi bezala).

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

19.1. Ezarritako betekizunak eta baldintzak eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak bete direla justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan, haren erregelamenduan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, deialdi honetan jasotako berariazko xedapenak izan ezik.

Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak 31.5 artikuluan xedatzen duenez, ezarritako justifikaziorako epea igaro eta administrazio-organo eskudunari aurkeztu ez bazaio, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkez dezala. Ezarritako epe horretan justifikazioa aurkezten ez bada, itzultzeko eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion dossier zigortzailea abiaraziko. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten ezar lekizkiokeen zehapenetatik.

19.2. Justifikatzeko modua.

Justifikatzeko agiriak:

1. motako laguntzak:

Justifikazio-dokumentazioa, kontratu mugagabea egin eta 12 hilabetera aurkeztu beharrekoa, dirulaguntzaren aldia amaitu ondoren.

Kontratazioaren amaierako memoria, enpresaren, langilearen eta dirulaguntza eskatzen den kontratazio-aldiaren datu osoak jasoko dituen. Halaber, guztizko soldata-kostua adierazi beharko da, sortutako guztizkoa, kalte-ordaina (hala badagokio) eta enpresaren Gizarte Segurantzako kostua bereizita, dirulaguntza eskatzen den aldian.

Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

Kontratua egin ondorengo 12 hilabeteetako nominak eta hura ordaindu izanaren egiaztagiriak.

Honela justifikatu beharko da nominen ordainketa:

a) Txeke edo banku-transferentziaren bidez egin bada, edo ordainketa elektronikoko bitartekoren bat erabiliz, banku-entitateak zigilatutako dokumentua edo banku-ordainagiria aurkeztu beharko da.

b) Beste bitartekoren bat baliatuz ordaindu bada (bakarrik 1.000,00 eurotik beherako ordainketetarako balio du), langilearen erantzukizunpeko adierazpena dela medio, zeinean hileroko kopuruak jaso dituela adierazi beharko baitu, enpresa edo entitateak zigilatuta eta langileak sinatuta, kobratu izanaren erakusle.

Ofizios eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak —Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizios egiaztatuko da—.

2. motako laguntzak:

Dirulaguntza jasotzeko epea amaitu ondoren aurkeztu beharreko justifikazio-agiriak:

Kontratazioaren amaierako memoria, enpresaren, langilearen eta dirulaguntza eskatzen den kontratazio-aldiaren datu osoak jasoko dituen. Halaber, guztizko soldata-kostua adierazi beharko da, sortutako guztizkoa, kalte-ordaina (hala badagokio) eta enpresaren Gizarte Segurantzako kostua bereizita, dirulaguntza eskatzen den aldian.

Dagozkion hilabeteetako nominak eta hura ordaindu izanaren egiaztagiriak.

Honela justifikatu beharko da nominen ordainketa:

a) Txeke edo banku-transferentziaren bidez egin bada, edo ordainketa elektronikoko bitartekoren bat erabiliz, banku-entitateak zigilatutako dokumentua edo banku-ordainagiria aurkeztu beharko da.

b) Beste bitartekoren bat baliatuz ordaindu bada (bakarrik 1.000,00 eurotik beherako ordainketetarako balio du), langilearen erantzukizunpeko adierazpena dela medio, zeinean hileroko kopuruak jaso dituela adierazi beharko baitu, enpresa edo entitateak zigilatuta eta langileak sinatuta, kobratu izanaren erakusle.

Ofizios eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak —Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizios egiaztatuko da—.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: enpresa edo entitate onuradunak Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta enpresa edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun denean ere.

21.1. Itzultzeko arrazoiak.

Ez justifikatzea, behar bezala ez justifikatzea edo deialdi honetan adierazitako betebeharrak ez betetzea, bereziki 14. oinarrikoak eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan aurreikusitako edozein kasutan: dagokion dosierra izapidetu ondoren, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, baita berandutze-interesak ere —dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera artekoak edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada—, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, ezinezkoa izango da eskubidea baliatzen jarraitzea egitate horien berri izaten den unetik bertatik aurrera, eta, gainera, itzuli egin beharko dira deialdiko baldintzak ez betetzeagatik jasotako zenbatekoak. Halaber, horrek erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar litzake (39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

21.2. Itzultzeko prozedura.

Dirulaguntzen araudi orokorrean eta administrazio-prozedura erkidean xedatutakoaren arabera arautuko da itzulketa-prozedura.

22. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

22.1. Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du

xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero — norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu —, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

22.2. Pertsona onuradunak adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

22.3. Gainera, datu horiei Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatzeko konpromisoa hartzen du.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 14/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak: giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 29an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ

I. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/87/90/68790.pdf>.

II. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/96/89/99689.pdf>.

III. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/05/85/90585.pdf>.